

# MUSIKA PLAZA

## herriko kulur zentroa

I: Iñaki Goikoetxea Burgoa / Z: Iñaki Begiristain Mitxelena

Master Amaierako Lana

2018 / 2019

Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoa

## Hasiera

Esku artean daukagun lana azken bi urtetan buruan neukan ideiaren forma dela esan daiteke. Lan askoren ostean izaera propioa izatea lortu duen proiektu bat, niretzat behintzat eta hau azaltzen saiatuko naiz laburki.

6 urtetako etaparen bukaera gisa hartzen dut proiektu hau, non ibilbide honetan zehar hartutako erabaki eta aktibitate bakoitzak bere influentzia izan duen azken emaitza honetan. Azken bi urtetan proiektu honekin buru belarri ibili naiz eta azkenean helburura edo amaierara iritsi naizela dirudi.

Proiektuaren hasiera unibertsitateko gradu amaierako lan gisa hasi zen 2017 ko udaran. Irailetik aurrera hasi behar nintzen proiektuarekin baina udarako erabakia neukan zer egin nahi nuen. Lehendabizi proiektua non egin aurkitu behar nuen. Baina ez neukan dudarik, Ondarroan egin nahi nuen, nire herrian, ezagutzen nuen inguruan, herriak dauzkan gabeziak ezagutuz erantzun bat emateko intentsioarekin. Zeledonion Udala eramateko ideiarekin hasi nintzen eta azkenean Musika Plazan amaitu nuen, nire tutore Iñakiren gomendioen ostean. Proiektuak helburu argi bat zuen. Inguruaren ber-aktibazioa, espazio publikoari garrantzi ematea eta herriaren beharrak asetzeko eraikin bat proposatzea.

Hau horrela, hasierako marrazkietatik eboluzionatzen joan da ideia, baina beti komentatutako ideia horiekin buruan. Herriko beharrak azterturik argi neukan zein gabezia dauzkan Ondarroak. Alde batetik, merkatu berri bat edo existitzen denaren lekualdaketa. Eta bestetik herrirako kultur areto edo espazio bat, ez baitago mota honetako eraikin publikorik eskuragarri herrian, eta betidanik herriak behar honen gabezia izan du.

Herri batean merkatua herrian erdigunea da, nire ustetan behintzat eta herriaren adierazgarri izan beharko luke. Kanpotik datorren edozein pertsonak espazio hau bisitatzeko beharra izan behar du, hau baita herriaren izaera eta esentzia ikusteko lekurik aproposena. Baina Ondarroako egungo merkatuaren egoera oso kezkagarri eta tamalgarria da, eta ondorioz zerbait proiektatu edo planteatu beharrean nengoen espazio honi buruz.

Aretoa, bestalde, urte askotan herriak eskatu duen zerbait izan da, eta harrigarria badirudi ere, ez daukaguna, eraikin publiko gisa behintzat. Herrian dagoen kultura indarrak adierazteko espazio falta dauka eta ondorioz honi soluzio bat ematen saiatu beharrean nengoen.

Ikusirik zein behar zeuzkan herriak, ze aukera ematen zuen lekuak eta zer esaten duen hirigintza araudiak, proiektu bat proposatu dut egungo egoerarekin zeharo desberdina dena eta ideia edo pentsaera askorekin apurtzen duena. Lehen aipatu bezala proiektuaren helburua herriaren erdigune izatea zen, Musika Plaza ber-aktibatzea, antzina izan zuen indarra hartzea eta herriko kultur espazio gisa kontsideratzea, bai kultura artistiko bai kultura gastronomiko gisa.

Orain ez naiz proiektuaren nondik norakoak deskribatzen hasiko, ezta zein estrategia nagusi planteatu diren, baina nahi nuke laburki azaldu proiektuaren izaera nolakoa den. Musika Plazako eraikina erabilera anitzeko eraikin bat gisa proposatzen da, bertan programa ezberdinak landuko direna, merkatutik hasi eta aretoraino. Horietatik at beste hainbat erabilerarako balioko luke, bai erakusketa areto, bai espazio estali gisa, bai plazako kiosko gisa. Erabilera asko emateko estrategia eraikinaren barnea erdi hutsik, zabal eta garbi uztea izan da, elementu mugikorrez baliatuta erabilera desberdinak egiteko aukera izateko. Hauen adibide dira, bai modulo mugikorrak (merkatuko postu gisa edo beste erabilera batzuetako), bai eszenatoki mugikorra (eraikinaren erdigunea dena, aukera desberdinak emanez), eta baita harmaila mugikorrak ere.

Ondarroa bezalako herri txiki batean ezinezkoa da behar bakoitzerako eraikin bat izatea, herriak ez baitauka gaitasunik hori eusteko. Ondorioz, erabileren nahasketa proposatzen duten eraikinak bultzatu behar dira, etengabe aktibitatetan daudenak eta erabilera asko egiteko aukera ematen dutenak. Proiektuaren asmo hori izan da, emaitza batera iritziz. Segurazko ez da denen gustukoa izango, desberdina baita, baina inguruari daukagun loturatik bananduz proiektatua izan da, zer pentsa ahal den kontuan izan barik, helmuga bakarra buruan izanik. Herriaren espazio eta ekipamendu publiko sarea suspertu eta herritarren bizi kalitatea hobetzeko ideia finkoa.

## Eskerrak

Helmuga honetara iritsi ahal izateko hainbat adiskide izan dira nire alboan. 2013 an krisi ekonomikoaren garaian unibertsitatera sartu nintzenetik 2019an Master Amaierako Lanaren entregara arte alboan egon direnak. Momentu hau txikitatik esperotako momentua dela aitortu beharrean nago, seguru bainengoen zer nahi nuen ikasi eta zeintzuk ziren nire helburuak. Beraz, urte askotan zehar bila ibilitako helburu batera iritsi naizela uste dut, orain beste askorekin hasteko. Hurrengo lerroetan familiarteko, lagun, adiskide, talde… eskerrak ematea gustatuko litzaidake, fase honetan era batera edo bestera influentzia izan baitute, eta lehen esan bezala, hartutako erabaki bakoitzak azken emaitza honetan bere eragina izan baitu. Azken esker hauek Ondarrutarrez idatziko ditut, naiz eta oso zuzena ez izan eta akatsen bat edo beste egin.

Lelen, lerro hauek irakurten zuenai eskerrik asko, zeuen denpori inbertiuterren eta atentziñoi jartzearren. On hainbat pertsona zerrendatuko dotxuaz, eurak baik ez nitxan allako eta eindako proiekture.

Ezinddot ahaztu azken urte bixetan tutore euki doten Iñaki Begiristain. Zeuaz eoteko aukeri emoztazun eta euki douzen tutoretzak proiektuetako klaseik aberatsenak ixan dizenan sentsazinoiaz laga nabe.

Ania, ama eta atte, azken 6 urtitan arkitektura ikasten dan bat etxin aguantati oso gatxe ixan bir dalako. Beti albun eotearren eta nazen moruku ixatin balorik barruratzearren. Ondarruko eta Donostiko familixi, beti galdetzen eotearren zelan nixun eta ezin ahaztu atxitxaz, azken hilabetitan albun ez euki arren beti eukiko douelako gogun.

Betiko lagunak, "kuadrilakuk", natxe albuko probintzixan bixi ondio zapatutan zeukin afaltzen lagateztazuelako. Momento horrei esker asteko rutini apurtu eta buru bixkat despejateko aukeri emotearren, barre batzuk botaz alkerren txorradak entzuten. Batxe Ondarruko beste laun eta ezaunak asko be, gatxe danak ixendatzi.

6 urtitan zir Donostiko eskolan ezaututako ikaskide eta launak be. Ezin danak zerrendatu, bai eta eskolako irakasle asko be, euran jakinturixi transmitiuten saitu baiti. Eta ezin ahaztu masterreko tribunaleko kidik be, proiektun azkan emaizta allaten lagundu doztenak. Donostikuz gain, Alikanteko eskolan ezaututako launak be ezin ahaztu, euran tartin onartu nitxuenak eta erlaziñoi politxe ixaten jarraitzen douenak.

Karrerako lelengoko lau urtitan zir bizikleta mundun ezaututako ziklista, zuzendari, mekaniko, entrenadore, talde, guraso… Eskerrik asko Debaberrena, Jira Bira, Elite Bikes eta Euskadi Fundaziñoi. Bizikleta baik dana oso diferenti ixango zalako.

Bizikleti laga ostin, bai mendi eta eskalada mundun ezaututako laun guztik, aktibitate horrek baik honezkio zoruk peata eongo nitxalako.

Deportetik aparte musika mundun txikitxaztik albun eduki doten pianuko irakisli be ezin ahaztu. Eskerrik asko Eli azkan urtin barriro zeure klasita juteko aukeri emotearren.

Masterreko praktiketan eondako VAUMM estudixu, neure lelengoko "biarra" zeuekin etxeko aukeri emotearren, karrera guztin baño gexa ikasi dotelako urte erdixin.

Amaitzeko, gustako gaztan eskertzi azken urtin neure proiektun txapi entzuteko prest egon dizen elkartik, goguaz entzun dabelako eta beti aporta doztelako zeoze positibu proiekturako. Eskerrik asko lelen Ondarruko Udalai, pasan urtarrilin aukeri emotearren batzeko eta erakusteko. On beste behin jun bikona amatxute erakuste. Eskerrik asko Zaldupe Eskola publikuai, umin beixetako ilusiñoi ikusti zeuk eindako proiektu bateaz ezin leike paga eta. Eta eskerrik asko Artekubu egitasmuai, neure proiektu explikaen lagatearren eta idea antzeakuk burun dabiauzen pertsonak alkarreaz batzearren, ia zeoze lortzen douen urte batzun burun.

Goxan ixendatutakutatik aparte seguru beste asko be ahaztu etxen gaztala, parkatu nire memoixa txarratxik, bañe eskerrik asko benetan, mertzi. On biarrin segiuti tokaten da, ikasitxaku errealidadea eruten intentateko eta arkitekturin bitxartez gizarte aurrerakoi batera pausuk emoteko segiuteko.



# PROIEKTUAREN GARAPENA

1.liburua

I: Iñaki Goikoetxea Burgoa / Z: Iñaki Begiristain Mitxelena

# 0. AURKIBIDEA
proiektuaren garapena


I. KOKAPENA ETA EGUNGO EGOERA ........ P02

II. BILAKAERA HISTORIKOA ........ P05

III. HIRIGINTZA ARAUDIA ........ P12

IV. ESTRATEGIAK ........ P16

V. PROIEKTU PLANOAK ........ P25

VI. PROGRAMA KONBINAKETA ........ P44

VII. GEHIGARRIAK ........ P64

ERANSKINA I ........ P70

ERANSKINA II ........ P80

ERANSKINA III ........ P90




# I. KOKAPENA ETA EGUNGO EGOERA
## proiektuaren garapena

Atal honetan proiektua non kokatzen den eta zein eremu okupatzen duen azaltzen dira. Honez gain, proiektuaren nondik norakoen berri ematen da eta baita eremuaren egungo egoera adierazten da.



# KOKAPEN PLANOA

## kokapena eta egungo egoera e. 1/4000

Ondarroa Bilbotik 65 kilometrora dago, eta Bizkaiko udalerririk ekialdekoena da, Gipuzkoarekiko mugan, kostaldean. 8.700 biztanle inguruko udalerria hau Lea-Artibai eskualdearen barne dago, bertako herririk handiena izanik, nahiz eta azaleraz txikienetakoa izan (3,6 km2). Proiektua herriko Alde Zaharraren barne den Musika Plazan dago kokatua.

Alde Zaharrean herriko 1.278 biztanle bizi dira 26.247m2-ko azaleran, 261 etxebizitza hektareako dentsitatearekin. Herriko gunerik dentsoena da 684 etxebizitzarekin. Ondarroa 1327ko irailaren 28an sortu zen eta arrantzaren inguruan eraiki dute herriko ekonomia, batez ere azken mendeetan.

Ondarroako Alde Zaharra Urkamendi mendiaren magal batean eraikia dago, Artibai ibaiaren azken meandroan itsasora iritsi aurretik. Herri planifikatu bat da abaniko forman dauden hiru kalez osatua eta guztiak talaia batean elkartzen dira, bertan plaza (Musika Plaza) eta eliza kokatzen direnak gaur egun, azken hau herriko harresi gainean eraikia. 1794ko suteak herri gune historiko ia guztia erre zuen eta eraikin batzuk gelditu ziren soilik, horien artean elizaren zati bat. Urteak pasa ahala herria zabalduz joan da mendi magaletan zehar ibaiari jarraituz gaur egungo egoerara iritsi arte.



# EGUNGO EGOERAREN PLANOAK

## kokapena eta egungo egoera e. 1/400






### Kokalekua

Egun Ondarroako Musika Plaza herriaren erdigunean kokatuta dagoen espazio publikoa da baina ez dauka erdigune izaerarik antzina izan zuen bezalaxe. Kota aldaketak, plazaren eta eraikinen egoera kaxkarrak eta frontoiaren mantenu faltak, izaera publiko txikia duen espazio batean bilakatzen du.

Urteetan zehar Musika Plaza aparkaleku gisa erabilia izan da, plazaren egitura kaltetuz jasan behar zuen pisua baino gainkarga gehiago izatearen ondorioz. Plazaren berregituraketa beharrezkoa da, baita ordenazioz kanpo dauden eraikinak ordezkatzea. Herriaren erdigunean egonik, ibaitik hurbil, herri-gune historikoaren barne eta espazio publiko eta eraikin nagusietatik gertu, kokapen ezin hobea da plazaren berregituraketa bat egiteko eta herrian dagoen ekipamendu faltari aurre egiteko.

Plan Bereziak interbentzioa aurreikusten du Musika Plazan (HIE-AI-02 Andra Maria - Musika Plaza), udaletxeko eraikina eta harmailak kenduz eta plaza berregituratuz, Ondarroako erdigune izaera emanez.

### Proiektua

Proiektua, inguruaren azterketa sakona egin eta espazio publikoaren berregituraketaren ondorioz eratorria izan da. Espazio publikoaren analisiaren emaitzak eraikigarritasuna finkatzea ekarri du eta hortik ondorioztatu da programa xehea. Plazaren edertasuna bere zabaltasun eta irekitasunean oinarritua dago, antzina bezalaxe. Ondorioz, espazio publikoaren azpiko solairuan kokatuko dira erabilera tertziariorako espazioak eta herrirako proposatuko diren ekipamendu publiko berriak, planak ahalbidetzen duen moduan, plazan bertan eraikin handirik kokatu gabe. Plaza azpiko espazio guztia birplanteatu da, egun dauden mugak egokiak diren aztertuz eta plaza azpian beharrezkoa den espazioa bereganatuz.

Herriaren erdigunea izango den gune bat proposatzen da, erabileren artean lehentasun maila gorena merkatu izaera duen espazio berri batek izango luke, ondoren, herrirako aretoa eta azkenik 2 ekipamendu desberdinen elkarrekintzatik eratorri ahal diren beste programa batzuek.

### Programa

Ondarroan ekipamendu falta handia dago eta daudenak ez daude oso egoera onean. Hori gertatzen da gaur egungo merkatuarekin, egoera ez da ona eta ezkutuan dago, ibai alboan apartatua. Honez gain, ekipamendu falten artean, herrirako areto publiko batena da garrantzitsuena, ez baitago horrelakorik.

Herriko ekipamendu beharrak azterturik eta Musika Plazak herrian daukan kokapena kontuan izanda, erabilera anitzeko ekipamendu bat proposatuko da plaza azpian, goian aipatutako programez gain, beste hainbat asetzeko aukera izango duena.

Plaza azpiko eremuaren azalera mugatua da eta horrez ondorioz erabaki da eraikinak erabilera anitzak izatea, kale izaera bat bereganatuz.

Erabilera anitzeko ekipamendu honek, herriko puntu nagusi batean bilakatuko luke bai eraikina bai kanpo espazioa.

Guztia espazio publikoaren berregituraketaren ondorioz sortua izan da, herriaren erdigune izaera berreskuratzea helburu hartuta.

# II. BILAKAERA HISTORIKOA
## proiektuaren garapena

Atal honetan proiektua kokatzen den eremuaren bilakaera historikoa azaltzen da, proiektuaren garapenean zerikuzia baitauka. Proiektua egin aurretik sakon aztertu da eremuaren bilakaera eta hurrengo orrialdetan azaltzen dira aurkitutako emaitzak.





# HERRIAREN SORRERA 1327-1335

## bilakaera historikoa

e. 1/20000

Ondarroa 1327ko irailaren 28an, Maria Diaz de Haro Bizkaiko andereak emaniko Foruaren bidez sortu zen, nahiz eta aurretik bertan jendea bizi. Itsas marea goian zegoenean Ondarroak eskaintzen zuen irudia dugu hurrengoa. Garai hartan sortu ziren "villa" edo hiribildu guztiak bezalaxe Ondarroa ere harresiz inguratua zegoen. Harresiak 5 ate zituen bere perimetro osoan. Harresien barnean zeuden nekazarien ortu-ariak; kanpoaldean aldiz mahastiak.

Garai hartan, herriko ekonomia nagusia balearen arratza zen. Bi ontzitaz baliatuz arrantzatu eta ekartzen zituzten baleak herrira, marea jaistean hondar gainean utziz. Bertan zatikatzen zituzten, atal guztiei etekina ateraz (bai janari gisa bai bale-olioarekin argizarietarako).

*Ondarroaren sorreratik suposatu dezakegu herritarren aisialdiko jokoetako bat pilota-jokoa izan zela. Hasiera batean luzean jokatua eta erreferentzia arkitektoniko gutxirekin. Irudian ikus daitekeen bezala marea goian harreriaz baliatu ahal ziren, eta marea beheean zegoenean, hondar gainean.





# ELIZAREN ERAIKUNTZA 1335-1550

## bilakaera historikoa

e. 1/20000

Gaur egun Ondarroako parrokia moduan ezagutzen dugun Andre Maria elizari begiratuz, begi bistan nabarmentzen zaigu eliza bi fasetan eraiki zela. Oinarriak alde batetik eta hauen gaineko eliza bestetik. 1335.urte inguruan hasi ziren elizaren oinarriak egiten eta elizaren hormen eraikuntza 1475.urte inguruan hasi zen. XVI.mende hasieran bukatu zuten elizaren kanpoaldea, baina 1740.urte arte luzatu ziren barnealdeko eraikuntza lanak.

Marea beherakoan ontziak hondar gainean gelditzen ziren eta eliza hondarrez inguratua gelditzen zen. Bertatik dator Ondarroako herriaren izena, "hondar-ahoa".

*Marea behean zegoela baliatuz espazio gehiago zeukaten hondar gainean edo eliza alboan pilota jokoan aritzeko. Aisialdi gune hori izan zen urteak pasa zirenean pilotalekua egiteko aukeratu zen gunea eta ondorioz suposatu genezake aurretik ere gune horreten pilota jokoak garrantzia zeukala.





# 1.FRONTOIA 1786-1886

## bilakaera historikoa

e. 1/20000

Ondarroako lehen frontoia 1786ean bukatu zen eraikitzen, garai hartarako nahiko luzea zen (hamahiru koadro zeuzkan, zestan jolasteko egokia). Frontoiaren ezker horma hegoaldetik iparralderako norabidea jarraitzen zuen.

Kontuan izan behar da, gainera, pilotaleku hura hondar gainean eraikia zegoela. Gaur egungo Kanttoipe kalea ez zen existitzen eta hondarra besterik ez zegoen eliza eta Artibai ibaiaren artean. Beraz, itsasoa gaiztotzen zen edo mare biziak gertatzen ziren bakoitzean, frontoiaren hormek pairatutako tratua nahiko kaxkarra izaten zen. 1782an eraikitzen hasitako frontoi hark ehun urte iraun zuen zutik.

*Lehenengo frontoiak erreboterako hormak eta ezker horma eraikitzea ekarri zuen, lehenagoko pilota joko zabala aldatuz.







## 2.FRONTOIA 1886-1907

bilakaera historikoa

e. 1/20000

Aurreko frontoia egon zen toki berean eraiki zen berria ere. Frontisa Kanttoipe aldera, eta ezker horma egun Musika Plaza azpian dauden bulegoek daukaten norabide berean. Baina berezitasun aipagarri bat zeukan aurreko frontoiarekin alderatuz, itsasoaren eragina saihestu nahian, frontoi berriaren zorua altxatu egin zuten lehen solairu batera (4-6m artean).

XIX.mende bukaeran eta XX.mendearen hasieran Ondarroan zabalgune bat eraikitzen hasi ziren ibai alboan zehar, eliza itsaso/ibaitik babestuz.

Hala ere, laster iritsi zitzaion zahartzaroa frontoi honi, elizako korreta eta frontisaren artean arrakala handi bat atera zen eta ezker horman hainbat pitzadura atera ziren. 1904an bota egin zuten.

*Urteak pasa ahala, pilota-jokoa aldatuz joan zen eta garai honetarako joko zuzenean jokatzen zen, atzeko hormarik gabe eta pilotari guztiak norabide berean.





# 3.FRONTOIA

## bilakaera historikoa

1907-1964

e. 1/20000

1907ko ekainaren 14ean onartu zen frontoi berriaren proiektua. Frontoiak 11 koadro eta erdi zeukan (46 metroko luzera) eta proiektuan luzapen bat egitea proposatzen zen Kanttoipe kalearen goialdetik (luzapena ez zen egin). Gaur egun ezagutzen dugun frontoi eta Musika Plaza 1908an eraiki ziren, nahiz eta ondoren aldaketa nabari bat izan udaletxe eta harmailen eraikuntzarekin.

3.frontoi eta plazaren altuera, 2.frontoiak izan zuen antzekoa zen. Lurretik igota zegoen eta oraingoan Kanttoipe kalearekiko bulego, denda... zeuden plaza azpian. Plaza gainean, kioskoa desmuntagarria izan zen nagusi udaletxearen eraikuntzaraino. Berdina gertatzen zen frontoirako harmailekin, egurrezkoak ziren eta udaran kokatzen zituzten, pilota partidak jokatzen ziren denboraldian. Egurrezko 2 elementuetatik at, Musika Plaza espazio zabal, ireki eta gardena zen erabat, inongo oztoporik gabe.

*Pilota-jokoak garrantzi handia hartu zuen herrian, zeukan kokapena ikusirik. Herriko espazio erabilienetakoa bilakatu zen herritarren artean, eta horrez gain, Musika Plaza aisi gune nagusia zen.







# UDALA ETA HARMAILAK

## bilakaera historikoa

**1964-2019**

e. 1/20000

1964ean udaletxe berriaren eraikuntzarekin Musika Plazan aldakuntza nabariak izan ziren. Udaletxe berriaren obrak frontoiaren luzera txikitu zuten 3 koadrotan (8 koadro eta erdian utziz) eta frontoiari erantsitako harmailek plazari zati eder bat kendu zieten.

Proiektuaren arkitektoa Castor de Uriarte izan zen eta 5.500.000 pezetako aurrekontua izan zuen. Udal eraikina laukizuzen formakoa da, behe solairua eta gainean beste birekin. Oin libreko eraikina da, egitura fatxadatik aldentzen delarik. Fatxada nagusiak frontoi aldera eta Kanttoipe kalera ematen dutenak dira, lehioz beteak. Beste biak, aldiz, nahiko itxiak dira, harrizko bukaera batekin. Frontoiari erantsitako harmailak aurrefabrikatuzko hormigoizko piezez egin ziren, 470 eserleku aurreikusiz.Aurretik zegoen kioskoa kendu eta berria harmailen azpialdeko kokatu zuten.

*Udalaren lanek pilotalekua mozteaz gain lehen zeukan garrantzia kendu zioten, ezkutuan gelditzen baitzen. Plazaren zabaltasuna eta inguruak zuen panoramika ederra bertan behera gelditu zen.



# III. HIRIGINTZA ARAUDIA
## proiektuaren garapena

Atal honetan proiektua hirigintza aldetik dauzkan arautegiak azaltzen dira, bai eta egin beharreko aldekatek proiektua egin ahal izateko.

# AI-HEI-02 EREMUA I

## hirigintza araudia

e. 1/400







Proiektua egingo den eremua, AI-HIE-02 eremua hain zuzen, Ondarroako Alde Zaharraren barnean dago kokatua eta ondorengo arautegiak segitu beharra dauzka.

"Ondarroako Plan Orokorra"-ean eta batez ere "Ondarroako Herri-gune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia"-n arautua dago proiektuaren eremua, Plan Orokorrak Alde Zaharrean kokaturiko eremu guztiaren xehetasunak bere esku uzten baiditu.

Musika Plaza Ondarroako herri-gune historikoaren barne dagoenez Plan Berezian arautua dago bereziki. Alde Zaharreko lurzoru guztia hiri-lurzoru kalifikazioa du eta 26.247m2-ko azalera dauka.

Atal honetako azken orrialdean arautegian egin beharreko aldaketen zerrenda jartzen da, proiektua egin ahal izanez gero.

# AI-HEL-02 EREMUA II

hirigintza araudia

e. 1/400






Musika Plaza Andra Maria elizaren inguruko babes gunearen parte ere bada proiektua kokatzen den eremua, eta honez gain, antzina Ondarroa ixten zuen harresiaren trazadura Musika Plazaren albotik pasatzen da (puntu arkeologiko bat izanez). Planaren arabera, egungo udaletxeko eraikina ordenazioz kanpo dago eta pilotalekuko harmailak inguruarekin bat ez datozen elementu bezala kalifikatuak daude.

Plaza azpiko udal espazio ezberdinek ez daukate inolako babes mailarik eta birgaitzeko edo eraikuntza berri bat egitea aukera ematen du. Planak esku-hartze bat aurreikusten du Musika Plazan, plazaren berregituraketa bat proposatuz (HIE-AI-02 Andra Maria - Musika Plaza) eta bertan dauden udaleko eta plaza azpiko lokaletako erabilerak (udal bulegoak, herri-auzitegia, udaltzaingoa ...) beste eraikin batera lekualdatuz (Zeledonio institutua zen eraikinera), plazan eraikin txikiren baten eraikuntza ahalbidetuz (kiosko antzekoa) eta plaza azpian 1.000m2-ko eraikigarritasuna gehienez baimenduz erabilera tertziorako eta ekipamenduak jartzeko.



# ARAUDIAREN APLIKAZIOA

## hirigintza araudia

e. 1/2000

Araudiak dioen bezalaxe, lehendabiziko pausoa Musika Plazan kokatzen diren eraikinak kentzea da, ordenazioz kanpo baitaude. Horrela, Eranskina II ataletako argazkietan ikus daitekeen zabaltasuna bereganatuko luke plazak. Hori horrela, egungo udal eraikina eta plaza azpian kokatuta dauden herri administrazioko bulegoak Zeledonio hezkuntzako institutura eramatea da asmoa, honen zaharberritzea egin ostean, eraikin bakar batean zentralizatuz herri administrazioko eraikin txiki guztiak. Ikusi Eranskina I atala.

Hau eginik, proiektua garatzerako orduan hainbat aldaketa garrantzitsu egin beharko lirateke araudian.

-Eraikigarritasuna lekuz aldatu. Planak plaza azpian mugatutako 1000m2-ko eraikigarritasun zonaldea plazaren beste alde batera mugitu.

-Interbentzio eremuaren delimitazio malguagoa, mugak zabalduz.

-Solairua bat edo bi egiteko aukera plaza gainean, bolumen bat ateratzeko aukera emanez zonalde jakin batean.

-Material desberdinen erabilera, ez ohiko (herri ekipamendu) eraikin batentzat.



# IV. ESTRATEGIAK
## proiektuaren garapena

Atal honetan proiektuan hartutako erabaki nagusiak azaltzen dira, bai eta materialen eta programaren inguruan zehaztutako gauzak ere.





# ESPAZIO PUBLIKO SEGIDA, MOZKETA

## estrategiak

e. 1/2000

Ikusirik egun Musika Plazaren traza noraino iristen den eta nola oztopatzen duen Kanttoipeko espazioan, ardatz irudikari bat proposatu da egungo frontoiaren bukaerak ematen duena. Ardatzak ipar-hego norabidea dauka eta erabaki da ardatzaren ekialdera dagoen eremua espazio publiko gisa ulertzea (kanttoipeko espazioari segida emanez) eta proiektuan eraikigarritasuna ardatzaren mendebaldera mugatzea.

Oinarri honekin Alamedako eta Kanttoipeko espazio publikoaren arteko lotura hobetu eta azken honi izaera berri bat ematea proposatzen da, Alamedako "berdegune" izaera Kanttoipeko espazioan zehar eramanez. Horrela, Musika Plazak duen izaera gogorra Kanttoipeko espazioak edukiko lukeen "berdegune" izaerarekin parekatuko litzateke.

Gainera, Kanttoipeko espazio publiko berriak Musika Plaza azpian proiektatuko den ekipamendu publikoarekin elkarrekintzan egongo da. Ezarritako ardatzak, ekialdeko aldean utziko luke egungo igogailua, erdian inongo erreferentzia gabe, eta ondorioz hau lekualdatzea erabaki da elizaren beste aldera, eraikinei atxikita (V.atalean gehiago azalduka da).





# ERAIKIGARRITASUNA

## estrategiak

e. 1/2000

Frontoiaren luzeran eta barnealdeko horman proiektuan duen muga ezartzeko mikropilote bidezko horma bat proposatzen da, hauek jarri ahala barnealdko guztia hustutzen joateko.

Eraikigarritasuna mugatzeko 3 ardatz irudikari nagusi erabili dira gehienbat. Hegoaldera frontoiak berak mugatuta gelditzen da eremua. Aurreko atalean (IV.2) aipatu bezala, ekialderantz frontoiaren bukaerak sortzen duen ardatz irudikariarekin mugatuta gelditzen da. Mendebaldeko muga egun mendiak daukan forma kurboak mugatuta gelditzen da. Azkenik, iparraldeko muga Hondartzako Zubiaren ardatz irudikariak mugatzen du, bukaera bat emanez eraikigarritasun espazio posibleari. Horrela, 4 aldetara mugaturik 1000 m2 inguruko espazio eraikigarri bat lortzen da, Plan Bereziak ahalbidetzen zuen bezalaxe.





# FRONTOI LUZAPENA
## estrategiak

e. 1/2000

Proiektuaren esku-hartzearen oinarrietako bat frontoiari emaniko trataera da. Historian zehar eduki duen garrantzia ikusirik bere hasierako traza bereganatzea proposatzen da, eraikigarritasunaren mugak errespetatuz. Aurretik aipatu bezala egungo frontoiaren mugan lerro irudikari bat ezarri da bertatik ekialderantz publikoaren segida hobetzeko. Hala ere frontoiaren luzapena proposatzen da hegaldura bat bezalaxe espazio publikoaren gainetik.

Frontoiaren luzapen honek Kanttoipeko espazio publikoa egituratzeko balio du, baita aterpe bat sortzeko eta gainera, Musika Plaza azpian sortuko den eraikin publikoaren harrera gune estali funtzioa bereganatu dezake. Frontoiaren luzapen hau 3 koadrokoa izango da (12m inguru) eta Kanttoipen proposatuko den "berdegune" espaziotik ikusgai egongo da, antzina pilotalekuak herrian zeukan garrantzia bereganatuz.

*Kale gaineko frontoi luzapenaren ideia 1907ko 3.frontoi eta plazaren proiektutik eratorri da. Egungo Kanttoipeko kaletik etxebizitzetarainoko luzapena proiektatzen zuten, frontoia zeztan jokatzeko egokia izateko.





# BOLUMENAREN SORRERA

## estrategiak

e. 1/2000

Musika Plaza azpian proposaturiko ekipamendu publikoak bi programa nagusi bereganatuko ditu, alde batetik merkatua eta bestetik herrirako areto publikoa. Merkatua espazio malguagoa da eta ez dauka aretoak bezalako izaera nagusirik. Azken honek, bere presentzia nabarmentzea eskatzen du eraikin bolumetriko bat sortuz.

Azken honen kokapenerako eremua Alde Zaharreko gainerako etxadien norabidea aztertu ondoren zehaztu da, baita ardatz irudikari batzuk kontuan edukiz. Eraikin bolumetriko honek Musika Plazako horizontaltasunarekin harremanean egongo da kontraste bat sortuz elementu horizontal eta bertikalen artean. Eraikin bolumetriko honek ekipamendurako sarrera nagusi bat emateko balio du eta baita goialdean areto txiki bat edukitzeko.

*1908an Musika Plaza eraiki zenenan, bolumena kokatuko den puntuan plazaren hegaldura bat zegoen, azpian aterpe bat sotuz. Bolumenaren kokapenarekin antzinako "aterpe" ideia bereganatu nahi da bolumenak puntu horretan harrera funtzio bat izanez.





# ERLAZIO IBILBIDEAK

## estrategiak

e. 1/2000

Proiektuaren esku-hartzearen oinarrietako azken puntua Musika Plazak daukan kota aldaketa eta beste espazioekiko lotura/harremanak sortzeko estrategiak dira. Azken 150 urtean Musika Plaza zokalo baten gainean egon da, talaia bat sortuz beheko sarearen gainean. Proiektuan talaiara igotzeko harremana hobetzea proposatzen da Musika Plazaren eta Alamedaren artean harmaila antzeko bat sortuz. Harmaila honek espazio biak zuzenki lotuko lituzke eta gainera harmaila itsasorantz begira kokatuko litzateke, bi espazioen arteko erdigunea izanez. Honez gain, eraikin bolumetrikoan igogailua proposatuko da irisgarritasuna hobetuz goi eta behe artean.

Harmailaz gain, plazari koxka bat egitea proposatzen da, kanttoipeko espazio publikoa plaza azpiko ekipamendurantz sartuz eta honen argiztapena hobetuz. Gainera, plazaren zurruntasunari bizitasun bat ematen dio muga sigi-sagatsuak. Azkenik, egun igogailua dagoen tokiaren parean, eskailera batzuk proposatzen dira elizaren oinarrien arkuen azpialdetik, ibilbide eta komunikazio anitzak proposatuz plazara igotzeko.



# IKUSPEGI OROKORRA
## estrategiak

Ikuspegi orokor honetan, aurreko orrialdetan aipaturiko estrategiak guztiak irudikatzen dira, espazio publikoaren jarraitasunetik, espazio publikoen lotura izango den harmaila eta bolumenera. Hurrengo orrialdetan, eraikinaren barne estrategiak eta materialen aukeraketak azalduko dira.

























## 1 KALE IZAERA

Eraikigarritasuna finkatzeko erabilitako estrategiak aurreko orrialdetan definitu dira. Eremuak daukan kokapena ikusirik kale izaera daukan eraikin bat proposatzen daa, eraikinago baino kaleago dena. "Fatxadarik gabeko" eraikina izango da ingurura moldatzen dena eta bere barnetik kale izaera integratzen duena. Horrela, eraiknak barnean hartuko dituen programez gain, kale estali funtzioa izatea proiektatzen da.

## 2 ERABILERA MALGUA

Kale izaerako ekipamenduak, erabilera anitz bereganatu behar ditu eta ondorioz ardatz bat proposatu da bertan programa desberdinak lantzeko aukera izateko.

Hasieratik aipatu bezala, herriko beharrek merkatu eta areto baten eskatzen dute, baina eraikinak, hauez gain beste hainbat betetzeko aukera ematen du erabilera malguko ardatzaren inguruan. Erabilera horien artean, merkatua, azoka, aretoa, zinema sala txiki bat, erakustokia, aisi gune estalia... egongo liratezke.

## 3 MUGIMENDUA

Erabilera malguko ardatzean programa desberdinak lantzeko, elementu mugikorren erabilera proposatu da, funtzio anitz eduki ahal dituztenak. Eraikineko programa gehiena ardatzaren gainean garatuko da eta ondorioz ardatza libre uztea proposatzen da eta behar denean soilik elementu mugikorrez okupatzea. Elementu hauen artean merkatuko modulu mugikorrak, harmaila teleskopikoak eta eszenatoki mugikorra daude. Elementuen mugimendu honek eta eraikinaren erabilera malguak, etengabe mugimenduan egongo den eraikin batean bilakatuko duta, herriko ekitaldi nagusiak bere barne hartuz eta erdigune izaera bereganatuz. Ondorioz, eraikina "Non Stop Building" bat izango litzateke, etengabe mugimenduan dagoen eraikina.



HORMIGOIA
sendotasuna





Egitura



Barne akaberak



Urbanizazioa

OHIAL HORMA MODULATUA
iragazkortasuna





Behe zokalokoari uniformetasuna



Oihal horma modulatua



Gainerako leiho eta ateak

ZURA
berotasuna





Barne moduloak



Urbanizazioko eserlekuak



Bolumeneko sabai faltsu iragazkorra

ZINKA
desberdintasuna





Bolumenaren fatxada eta estalkia



Bere presentzia propioa



Arintasuna eta fatxada eta estalki jarraitasuna

# MATERIALITATEA
## estrategiak

Eraikina lurrean erdi murgildurik dago eta eremuaren geometriari egokitzen zaio. Proiektua egiterakoan materialen bateratasun bat bilatzea izan da helburua, eraikinak material soil eta konbinatuekin eraikin osoa sortzeko aukera izatea. Hori dela eta 4 material/elementu nagusi agertuko dira gehienbat eraikinean: hormigoia, ohial horma modulatua, zura eta zink-a.

### Hormigoia

Eraikineko material erabiliena izango da, bai egitura egiteko bai akabera gisa erabiltzeko bai zoru bai urbanizazio eremuetan. Hormigoia modu ezberdinetara proposatu da: hormigoi armatua egituretarako, hormigoi pulitua zoruetarako, hormigoiez eginiko plakak barne banaketa hormetarako, hormigoizko pieza aurrefabrikatuak barandila eserlekurako, hormigoizko baldosak urbanizaziorako... Hormigoiak sendotasun sentzazioa emateko proposatu da eta baita eraikina erdi lurperatua dagoelako, kobazulo izaera horrekin.

### Oihal horma modulatua

Oihal hormak presentzia handia dauka eraikinean, zokaloa ematen baitio eraikinari Musika Plazako kota aldaketa ia osoa estaliz. Horma iragazkor eta zeharrargi bat sortzen du, batzuetan irekia eta besteetan itxia egongo dena. Modulazio bat proposatu da 2 m-takoa eta horrekin eraikineko lehio eta ate guztiak modulatzea proposatu da, guztiei izaera berdina emanez. Modulazioan oihal hormaren montanteekin jolastu da, hauek sakonera handiagoa izan dezaten eta bertikaltasun bat eman. Oihal horma puntu batzuetan gilotina erako leihoak dauzka, batzuetan pasoa utziz kanpo eta barne espazioak batuz.

### Zura

Zuraren erabilera puntualagoa da eraikinaren barnean. Zura berotasun edo konfort elementu gisa erabili da, hormigoiaren hoztasunari aurre eginez. Proiektuan jarritako eserlekuek zurezko akabera izatea proposatu da, bai urbanizaziokoak bai barandila eserlekuak ere. Bestalde, espazio publiko desberdinak batzen dituen harmailan ere zurezko akabera proposatzen da. Eraikinaren barnean, bolumeneko sabai faltsua eta behe espaziokoa ere zurezko xaflez egitea proposatzen da, atondurak hauen gainetik pasatuz eta behekaldetik erdi ikusiz. Gainera, merkatuko eta erabilera anitzeko moduloak egurrez egitea proposatzen da, berotasun puntu hori emanez.

### Zink-a

Azkenengo materiala, bolumenaren oskolaren materiala da. Eztabaida eta aldaketa askoren ostean, zink-a erabiltzea proposatu da bai bolumenaren fatxada bai estalkirako. Zinkak bolumenak bere presentzia propioa izatea ekarriko du, material arin gisa ulertuz eta bolumen osoko itxiturak jarraitasun batekin ikusiz. Zinka material gisa iragazgaitza da eta estalkian beste lamina iragazgaitzik ez kokatzea ahalbidetzen du. Mantenu aldetik beste material metaliko askok baino arazo gutxiago ekartzen ditu.

# V. PROIEKTUKO PLANOAK
## proiektuaren garapena

Atal honetan proiektua bera azaltzen da plano ezberdinen bitartez. Azalpen baten ostean, proiektuko oin plano, altxaera eta ebaketak erakusten dira.



# PLANOEN AZALPENA
## proiektu planoak

Orrialde honetan, hurrengo planoen azalpenak jarriko dira, beraiei erreferentzia eginez. Plano horien artean, kokapen plano orokorrak, solairu bakoitzeko oin planoak, altxaera planoak eta luzetarako eta zeharkako ebaketak daude.

### Plano orokorrak

Aurreko atalean aipautako estrategietaz baliatuz Musika Plazako berregituraren proiektuaren emaitza dugu ondorengo hau. Situazio planoan ikus daiteke proiektuaren interbentzio eremu osoa, elizaren ingurua bereganatuz. Araudiak mugatzen zuen interbentzio eremuaren mugak zabaldu dira proiektua osotasunean borobiltzeko. Elizaren oinarri inguru guztian espazio publiko berde bat proposatzen da, Kanttoipeko espazio publikoa osotasunean ulertuz, eserleku ugarirekin eta zoladura jarrai batekin.

Espazio publikoekin jarraituz, beste bi txikiago proposatzen dira. Lehenengoa bolumenaren aurrealdean sarrera espazio gisa iturri bat ardatz duela eta bigarrera Iparragirre kaleen bidegurutzeei "plaza" izaera emanez, Musika Plaza eraikinerako sarrera espazio gisa.

Musika Plazaren muga ez litzateke egungo moduko zurruna izango. Frontoiaren luzapenak, ekipamendua argiztatzeak eta plazarako harreman/komunikazio/ibilbideek eratorritako muga siga-sagatsua izango litzateke, plazaren bizitasunari lagunduz. Muga hori emango duen plazako eserleku/baranda, zonalde batzuetan eserleku gisa funtzionatzea proposatzen da, plazako espazio hiri altzaririk gabe garbi utziz.

Bestalde, aurreko atalean aipatutako igogailuaren leku aldaketa ikus daiteke, elizaren beste aldean etxibizitzei atxikia. Igoigailu elementua beste eraikin bertikal batzuen parean geldituko litzateke, egun daukan izaera indartsua gutxituz. Aktuazio honekin etxebizitzen egitura sendotzeaz gain, etxeen handipen txiki bat proposatzen zaie (6m2 ingrukoa) beraien fatxadari elementu bat atxikitzearen trukean. Igogailuak elizaren ate parera emango luke, egun betetzen duen funtzioa mantenduz.

Espazio publikoaren jarraitasun planoan argi ikus daiteke eraikinaren kale izaera, bai eta erabilera anitzak, eraikina mugimenduan egongo den ardatz baten inguran sortuz. Hori horrela, aisi gune estali moduan funtzionatu dezakeen ardatz horretan garatuko dira eraikineko programa desberdinak. Ardatzak 8m zabal izango ditu eta bi sarrera nagusi izango ditu bi muturretan. Horietako lehena frontoiaren luzapenaz sortutako aterpetik egingo da eta bestea Alamedaren paretik. Ardatzen bukaeran harrera gunea eta harmaila teleskopikoak egongo dira.

Jende asko bilduko den eraikin bat izanik, ardatz nagusiaren kale aldeko izkinan larrialdietarako pasabide bat proposatu da 1,5m zabal dauzkana, hainbat irteera izanez bere luzeran zehar.

Ardatzatzaren eta atzealdeko mugaren artean merkatuko modulo mugikorren aparkalekua, biltegiak, merkatuko 4 postu finko, eszenatoki mugikorra mugitzeko makina gela eta bolumenaren eta ardatzaren arteko lotura espazioa egongo liratezke.

Musika Plaza igotzeko harmailen azpian, makina gela eta komunak kokatuko ziren. Hauen eta ardatzaren artean egongo da behe eta goi kotak komunikatuko dituen igogailua, eraikinaren sarrera alboan.

Bolumenaren erpinean, aurretik aipatu bezala eraikineko sarrera nagusia egongo da, erakustoki edo aretorako sarrera gune gisa funtzionatu dezakeena, goiko solairuekin komunikazio bertikala izanik.

### Oin plantak

Behe solairuko oinean merkatu+azokako egun baten ikuspegia ikus genezake. Ardatzean zehar merkatuko postu mugikorrak ezarri dira, baita azokarako mahai mugikorreko postuak. Merkatu izaera izateaz gain kale izaera ere badauka. Bolumenaren erpineko sarrera-espazioa erakusketa areto gisa erabili ahalko litzateke, eraikinetik kanpo bere alboan existitzen denarekin erakustoki multzo bat osatuz.

Kanpo espazioari dagokionez, Kanttoipeko plaza eraikinera sartzea proposatzen da zoladura berdina jarriz eta eraikinaren fatxadan oihal horma bat proposatuz ireki ahal dena. Kanttoipeko espazioak lorontzi berdeak eserlekuekin konbinatuko ditu eta erdialdean frontoiaren luzapenaren aterpea egongo da. Aterpe honetan udan azoka jarri ahalko lizateke edo bestela karga eta deskarga egiteko leku egokia litzateke.

Aterpearen albotik plazarako eskailerak proposatzen dira eliza arku azpitik, behe aldean bizikletentzako aparkaleku bat utziz.

Musika Plazako oinean areto osoa jartzean geratuko litzatekeen oina ikus genezake. Bertan, 250 pertsona ingururentzako aretoa ikus genezake goiko zinema areto txikia beheko harmaila teleskopiko irekiekin osatzen denean. Eszenatoki atzea egin ahal izateko, erabilera anitzeko merkatuko bi modulo erabiliko ziren, kamerino bezala ere funtzionatu ahal dutenak.

Goiko aretoak bi sarrera dauzka alde bietatik. Iparragirre plaza ematen duenean eserleku bat proposatzen da Musika Plazak sortzen duen zokaloaren kota aldaketan babes funtzioa egiteko. Honen aurrealdean Iparragirre plaza osatuko lukeen zokalo bat proposatzen da aurreko etxebizitzan behe oinen aurrealdean, bertan negozioak kokatzeko eta Musika Plzaren sarrera zerbitzari moduan funtzionatzeko. Kanpora atera aurretik, sarrera espaziora joateko aukera dago, eta baita igogailu edo eskailera bitartez goiko solairura igotzeko eta aretora goiko partetik sartzeko. Puntu honetan kokatuko dira aretoko plaza irisgarriak, beraien komun propioarekin eta proiekzio gelaren aurrean. Aretoko beste aldeko sarrera, harmailetara ematen du eta bertan kokatzen da komun txiki bat eta areto txikirako takila.

Bestalde, merkatuko behe oinean espazio estaliak izan ditzazkeen erabilerak beraganatu ahal ziren.

*Oin honetan behe solairua ez litzateke agertu beharko baina aretoaren osotasunaren ulermenerako errazagoa delakoan jarri da.

Goiko solairuko oinean areto txikirako hirugarren sarrera egiten da. Bertara iristeko, eskailera eta igogailu bitartez egin daiteke, bai behe oineko sarrera espaziotik bai Musika Plazako solairutik. Goian azaldu bezala, kota honetan kokatzen dira aretoko eserleku irisgarriak (hauentzako lekua), bai eta hauentzako komun irisgarria ere. Gainera, kota honetan proiektore gela kokatzen da, bai eta hauentzako komuna ere. Honez gain, aretoko kota honetatik estalkira ateratzeko aukera dago, bertan dagoen makina gela erdi estalira.

Plazari dagokionez, planoan adierazita dago eraikinaren kiosko funtzioa. Eszenatokia goiko puntura igoz gero, Musika Plazarako kiosko funtzioa egin dezake, bertan egiten diren jai eta kontzertuak emateko. Plaza zabalak bertan txosnak kokatzea eta aktuazio ezberdinak egitea balioatzen du.

Estalki oinean eraikinak daukan kaskara izaera ikus genezake, estalkiko materialitatea jaitsiz baitoa fatxadetatik zehar. Honez gain, plazan eman ahal diren ekintza desberdinak ikus daitezke. Frontoian pilota partida garrantzitsu bat egonez gero, harmaila desmuntagarriak jartzeko aukera legoke. Bestalde, gainerako espazioa beste erabilera batzuetarako erabil daiteke.

### Altxaerak

Altxaera planoetan eraikinaren ekialde, iparralde eta mendebaldeko fatxadak ikus daitezke. Bai Musika Plaza bai bolumen berria inguruan integratuta geldituko liratezke. Hala ere, hauen presentzia material eta forma ezberdinen bitartez lortuko litzateke.

Kale mailan, ekipamenduaren behe oinean, fatxada garden bat proposatzen da, oihal horma modulatu bat zehazkiago. Fatxada garden honek plazara ateratzen den bolumen zurrunarekin konbinatuko litzateke. Bolumena bera, zinkezko fatxada estalkia litzateke, kaskara antzeko bat sortuz.

Ekialdeko altxaeran proiektua bere osotasunean ikus daiteke, fatxada nagusiak azalduz. Irudian, elizarekin eta inguruko etxebizitzekin daukan harremana ikus daiteke. Baita, Kanttoipeko espazio publiko berriaren izaera eta eliza azpiko arkutik plaza igotzeko proposaturiko eskailera. Beste aldean, bolumenean eraikinerako harrera/sarrera ikus dezakegu, eraikinera sartzeko keinua eginez. Gainera, frontoiaren luzapena sortutako aterpea garbi ikus daiteke, bere presentzia bereganatuz.

Iparraldeko altxaeran eraikineko harrera/sarrera kokatzen da, bolumenaren erpinaren erdia hartuz eta oihal hormaren bidez bereiziz. Bolumenak Iparragirre kalea mugatzen du, plazarako bidea eginez.

Mendebaldeko altxaerak bolumenaren atzeko aldea erakusten digu, Iparragirre kalearen ebaketa baten bitartez. Bertan bolumenaren tolesdurak ageri zaizkigu, material berdinean eginak eta baita kale honetatik barnera sartzeko daukan sarrera eta itxaroteko eserlekua (kota aldaketari aurre egiteko).

Hegoaldeko altxaera E-E' ebaketan ikus daiteke. Gehienbat, lehen planoan, kiosko funtzioa izango duen lehiatea daukagu, ia 8 metro zabalekoa eta mugikorra izango dena, eszenatokia igoz gero. Gainerakoa, atzerago egongo litzateke eta aretorako sarrera biak liratezke, albo banatan.

### Ebaketak

Proiektuan hainbat ebaketa desberdin egin dira toki desberdinetatik. Eraikinak daukan erabilera anitzeko programa ebaketa ezberdinen bitartez irudikatzen sahiatu da, nahiz eta aukera desberdin asko eduki eta guztiak ez marraztu.

A-A' luzetarako ebaketa I honetan behe oinean erakusten zen erabilerak agertzen dira: merkatua, erakustokia eta zinema areto txikia. Musika Plazan pilotalekuaren garrantzia nabarmentzen da eta harmaila ez finko batzuen aukera ematen da momentu jakin batzuetan behar izanez gero.

A-A' luzetarako ebaketa II honek goiko oinean azaltzen ziren erabilerak erakusten dizkigu: aretorako sarrera espazioa, areto nagusia eta espazio estalia. Eszenatoki mugikorra baliatuz, posible izango litzateke Musika Plazan kontzertuak ematea, plazaren zabaltasuna erabiliz.

B-B' luzetarako ebaketa honek harmailetatik eginiko ebaketa azalduko liguke, bolumenaren ekialdeko altxaera erakutsiz. Musika Plazak daukan sigi-saga garbi ikus daiteke, eraikinaren barne espazioak kanpo espazioekin konbinatzen baitira. Bien arteko oihal horma modulatua mugikorra litzateke, momentu batean espazio bakar moduan ulertzeko aukera emanez.

C-C' luzetarako ebaketak sarrera espazioa eta komunikazio bertikaleko elementuak erakusteko balio digu, bai eta behe espazioko merkatuko postu finkoak ikusteko ere. Ebaketa honek eraikinak dauzkan 4 kota desberdinak komunikatzen ditu: behe espazioa 4,2 kotan, sarrera espazioa 5 kotan, Musika Plazako kota 9,5 kotan eta azkenik goiko solairua 14 kotan.

D-D' luzetarako ebaketak frontoiaren luzera eta honen luzapena adierazten dizkigu, bai eta Musika Plazako barandila eserlekua eta frontoiko pilotentzako babes elementua, argiztapen puntu moduan ere funtzionatuz. Frontoiaren luzapenak behe kotan aterpe bat sortzen du eta bertatik egiten da eraikinerako sarrera bat.

E-E' ebaketa fugatu honetan merkatuaren bizitasuna eta plazaren zabaltasuna ikus dezakegu.

*Plano honetan 2 fuga puntu erabili dira guztia ikusi ahal izateko: bat eraikinaren barnerako eta bestea plazarako.

F-F' zeharkako ebaketa honetan areto osoaren dimentsioak ikusi ahal dira. 8m zabal izango lituzke ia luzera osoan 250 pertsonentzako eserlekuak izanez, baita gurpildun aulkientzako. Horrez gain, goiko zinema areto txikia itxi egin ahalko litzateke tabike mugikor baten bitartez eta beheko zatiko harmaila teleskopikoak bildu egin ahalko ziren.

G-G' zeharkako ebaketak sarrera espazioko dimentsioa erakusten digu eta baita komunikazioko eskailera, goiko areto eta goiko makina gelako sarrera ere.

# SITUAZIO PLANOA
proiektu planoak

e. 1/400



# ESPAZIO PUBLIKOAREN JARRAITASUNA

proiektu planoak

e. 1/400



# BEHE SOLAIRUKO OINA

proiektu planoak

e. 1/200



# MUSIKA PLAZAKO OINA

proiektu planoak

e. 1/200



# GOIKO SOLAIRUKO OINA

proiektu planoak

e. 1/200




ESTALKI OINA
proiektu planoak
e. 1/200
IPARRAGIRRE
SARRERA ESPAZIOA
Musika Plaza
Pilotalekua
Barandila eserleku perimetrala
KANTTOIPEKO
ESPAZIO PUBLIKOA
Frontoiko hegaldura
ALAMEDA
D
D'
+9.50
+4.20
+17.50
1
2
3
4
5
6
7
8
9
10
11
p.g.proiektua P32

# EKIALDEKO ALTXAERA

proiektua planoak

e. 1/200



## IPARRALDEKO ALTXAERA
proiektua planoak

e. 1/200



# EKIALDEKO ALTXAERA
proiektua planoak

e. 1/200




p.g.proiektua P35

# A-A' LUZETARAKO EBAKETA I

proiektua planoak

e. 1/200



# A-A' LUZETARAKO EBAKETA II

proiektua planoak

e. 1/200



# B-B' LUZETARAKO EBAKETA II

proiektua planoak

e. 1/200



# C-C' LUZETARAKO EBAKETA

proiektua planoak

e. 1/200



# D-D' LUZETARAKO EBAKETA

proiektua planoak

e. 1/200



## E-E' ZEHARKAKO EBAKETA
proiektua planoak

e. 1/100



# F-F' ZEHARKAKO EBAKETA

proiektua planoak

e. 1/100



## G-G' ZEHARKAKO EBAKETA
proiektua planoak

e. 1/100



# VI. PROGRAMA KONBINAKETA
## proiektuaren garapena

Atal honetan proiektuak bere barne dauzkan programa ezberdinen konbinaketaren berri ematen da, sinpleki adieraziz planoetan eta axonometria bidez situazio ezberdinak azalduz.

| KONBINAKETA TAULA | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Merkatua | | ✓ | ✓ | | | | |
| Sarrera espazioa | ✓ | | ✓ | | ✓ | ✓ | ✓ |
| Areto txikia | ✓ | ✓ | | | ✓ | ✓ | ✓ |
| Areto nagusia | | | | | ✓ | | |
| Espazio estali erdia | | ✓ | ✓ | ✓ | | | ✓ |
| Espazio estali osoa | | ✓ | ✓ | | | | |
| Plazarako kioskoa | | ✓ | ✓ | | ✓ | | |

Eraikinaren aberastasuna bere erabilera anitzean oinarritzen da. Programa desberdinak une berdinean aurrera eramateko aukera ematen duen eraikin publiko bat da, denbora guztian aktibitatea izango duen, "non stop building" bezala ezagutua. Egun, Ondarroa bezalako herri batean ezinezkoa litzateke erabilera bakoitzerako eraikin publiko bat mantentzea, eta hori dela eta programen konbinaketa eta aniztasuna proposatu da eraikin bakar batean, herriaren erdigunean kokatuz eta eraikin kultural bat proposatuz. Hurrengo orrialdetan programa desberdinen deskribapenak egin dira, bai teknikoki zein baliabide eta elementu izango luketen, bai zein azalera erabilgarri erabili ahalko zuten eta nolako ikuspegia izango zuketen.

Alboko taula programen konbinaketaren ondorioz sorturiko baliabidea litzateke, ikusteko zein konbinaketa posible dauden eraikin berdinean. 7 programa ezberdin proposatu dira, horiek izango baitira nagusiak eta bakoitzaren ezaugarriak eta beharrak ikusirik sortu da hurrengo taula. Argi ikus daiteke merkatua eta sarrera espazioan egon ahal diren aktibitateak konbinatu ahal direla, bai eta merkatu eta areto txikioak ere. Taularen ulermena errazteko eta ikusteko programa bakoitzaren xehetasunak hurrengo orrialdetan deskribatu dira banan bana.

# ESPAZIO ZERBITZARIAK
## programa konbinaketa

e. 1/250

behe oina




goiko oina




luzetarako ebaketa




Eraikina erabilera anitzeko izatean elementu mugikor zerbitzari ugari izatea dakar. Hori dela eta hurrengo planoan ikus daitezke zein elementu mugikor proposatu diren eraikinaren funtzionamendu egokirako. Modulu mugikorretatik hasita, eraikinaren erdigune den eszenatoki mugikorra, harmaila mugikorrak, pertsina eta ohial bertikalak, gilotina erako leihoak barne kanpo muga ezabatzeko... Horrez gain, eraikina behe oinean garatzen da gehien bat eta kanpo espazioarekiko harreman zuzena dauka, kale izaera bereganatuz. Hori dela eta, eraikinera sarrera irteerak hainbat puntutatik egin daitezke. Gainera, eraikinaren barne bi igogailu proposatzen dira, bat eraikinaren barnekoa eta bestea espazio publikoko maila igotzekoa.

### Legenda

| | | |
|---|---|---|
| | Azalera erabilgarria | 1440 $m^2$ |
| | Espazio zerbitzariak | 414 $m^2$ |
| | Merkatuko postu finkoak | 214 $m^2$ |
| | Komunak | 46 $m^2$ |
| | Instalazio gelak | 30 $m^2$ |
| | Elementu mugikorrak | 36 $m^2$ |
| | A-Modulu mugikorrak (A1, A2, A3, A4, A5x2) | |
| | B-Eszenatoki mugikorra | |
| | C-Harmaila mugikorra | |
| | D-Pertsianak (S1, D2, D3) | |
| | E-Oihalak / Kortinak (E1, E2, E3, E4, E5) | |
| | Sarrera / Irteerak | Sx14 |
| | Igogailuak | Ix2 |

ELEMENTU MUGIKORRAK

(A) modulu mugikorrak



(B) eszenatoki mugikorra



(C) harmaila mugikorra



# MERKATUA
## programa konbinaketa

e. 1/250

behe oina




goiko oina




luzetarako ebaketa




Merkatuko erabilera litzateke eraikineko programetako garrantzitsuenetakoa. Egunero irekita egongo den espazioa da, solairu bakarrean garatzen dena eta kanpo espazio publikoarekin harreman zuzena daukana. Espazio nagusia eraikineko erabilera anitzeko ardatza da, bertan kokatuko baitira merkatuko 4 modulu mugikorrak eta dauden postu finkoekin osatuko dute merkatua. Bolumeneko espazioan altuera bikoitzeko espazioa litzateke, tabernako mahai eta deskantsu gune gisa balio lezakeena. Honez gain, merkatuak astean behing baserritarren azoka hartuko luke, elementu mugikor batzuez baliatuz. Hauek, leihoen muga inguruan kokatuko liratezke, momentu batean azoka kanpora ateratzeko aukera edukiz.

Legenda

| | | |
|---|---|---|
| | Azalera erabilgarria | 740m$^2$ |
| | Espazio zerbitzatua | 414 m$^2$ |
| | Espazio zerbitzariak | 214 m$^2$ |
| | Merkatuko postu finkoak x4 | 46 m$^2$ |
| | Komunak | 30 m$^2$ |
| | Harrera gela | 10 m$^2$ |
| | Elementu mugikorrak (moduloak A1-A4) | 36 m$^2$ |
| | Sarrera / Irteerak | Sx6 |

AZOKA AUKERA

x12 postu
e. 1/5000




e. 1/75



## MERKATU IKUSPEGIA
programa konbinaketa



# MERKATUKO POSTU FINKOAK

estrategiak

e. 1/75



# MERKATUKO POSTU MUGIKORRAK
estrategiak

e. 1/75




p.g.proiektuaP50

# SARRERA ESPAZIOA
## programa konbinaketa

e. 1/250

behe oina




goiko oina



luzetarako ebaketa



Eraikineko sarrera espazioa altuera bikoitzeko espazioa da eta erabilera ugari egiteko balio du, horien artean areto edo zinemarako sarrera funtzioa, erakusketa areto, hitzaldi gela edo cateringerako espazio funtzioa, beste askoren artean. la 100 metro karratuko espazio zabala litzateke, goiko pisura igotzeko nukleo bertikala daukana eta goi eta behe espazioen arteko harremana sortzen dena. Sarrera espazioak bere komun eta biltegiak izango ditu, bai eta harrera gunea ere. Beste programekin konbinatzeko espazio egokienetakoa litzateke bere ezaugarriengatik.

Legenda

| | | |
|---|---|---|
| | Azalera erabilgarria | 158 $m^2$ |
| | Espazio zerbitzatua | 85 $m^2$ |
| | Espazio zerbitzariak (komunikazio, biltegi...) | 29 $m^2$ |
| | Harrera gunea | 16.5 $m^2$ |
| | Komunak | 27.5 $m^2$ |
| | Sarrera / Irteerak | Sx4+S5 |

ERABILERA AUKERA POSIBLEAK

Espazio zerbitzatua 85 $m^2$
+
Harrera espazioa 16,5 $m^2$



# SARRERA ESPAZIOKO IKUSPEGIA

programa konbinaketa



# ARETO TXIKIA / ZINEMA (92 eserl.)

programa konbinaketa

e. 1/250

behe oina




goiko oina




Sarrera espazio gainean areto txiki finko bat egongo litzateke, 92 eserleku dauzkana. Areto txiki honek beste eraikin guztiarekiko independiente funtzionatu dezake, bere sarrera irteerekin eta komun eta harrera guneekin. Aretorako sarrera Musika Plazatik egingo litzateke, bolumenaren bi aldeetatik. Hori dela eta, aretora behe puntuko izkina bietatik sartzeko aukera dago, bai eta eskailera edo igogailua hartuz goiko puntutik sartzekoa ere. Puntu honetan legozke, kontrol eta proiektore gela, bai eta elbarrituentzako espazioa eta komun propioa. Areto txikiko goiko puntutik, estalkian kokatuta dagoen makina gelarako sarrera dago. Aretoak hiru posizio izango lituzke: areto txiki independientea, begiratokia eraikineruntz edo areto nagusiaren parte.

## Legenda

| | | |
|---|---|---|
| | Azalera erabilgarria | 132 m² |
| | Espazio zerbitzatua (zinema aretoa) | 67 m² |
| | Espazio zerbitzariak (komunikazioa, sarrera) | 42.2 m² |
| | Kontrol gunea | 11 m² |
| | Komunak | 11.8 m² |
| | Sarrera / Irteerak | Sx2 |
| | Banaketa mugikorrak | D3+D5 |

luzetarako ebaketa




ERABILERA AUKERA POSIBLEAK

areto txikia (92 eserl.)



areto handia (236 eserl.)



begiratokia ardatzeruntz



# ARETO TXIKIKO IKUSPEGIA
programa konbinaketa



# ARETO NAGUSIA (236 eserl.)
## programa konbinaketa

e. 1/250

behe oina




goiko oina




luzetarako ebaketa




Areto nagusia hainbat espazioren konbinaketaz sortutako espazio da, elementu mugikor ezberdinez baliatuz. Eraikineko bolumenean ematen da eta areto txikia eta eraikineko ardatzeko altuera bikoitzako espazioa konbinatzean sortzen da, azken honetan harmaila mugikorrak ateraz. Aretoak eraikineko erdigune den eszenatoki mugikorrera ematen du, hau behar den altueran kokatuz. Eszenatokiaren atzealdea erabilera anitzeko moduluez baliatuta egiten da, bai eta oihal eta pertsiana bidez ere. Aretora hiru solairu desberdinetatik sartzeko aukera legoke, guztiak sarrera espaziotik pasatuz edo Musika Plazatik sartuz. Areto nagusiak 236 eserleku lituzke eta eraikineko elementu mugikor guztiek parte hartuko lukete programa aurrera eramateko.

### Legenda

| | |
|---|---|
| Azalera erabilgarria | 582 m² |
| Espazio zerbitzatua (aretoa) | 160 m² |
| Espazio zerbitzariak (komunikazio, sarrera...) | 280 m² |
| Harrera gunea, kontrol gunea | 27 m² |
| Komunak | 39 m² |
| Elementu mugikorrak | |
| A5x2-Modulu mugikorrak | 32 m² |
| B-Eszenatoki mugikorra | 32 m² |
| C-Harmaila mugikorra | 12 m² |
| Banaketa mugikorrak (pertsiana+oihala) | D1+E1 |
| Banaketa mugikorrak (oihala) | E2/E3 |
| Sarrera / Irteerak | Sx8 |

FUNTZIONAMENDUA

- Eserlekuak x 242
- Gurpildun aulkiak x4
- Sarrera / irteerak
- 3 solairuetatik konexioa



# ARETO NAGUSIKO IKUSPEGIA
programa konbinaketa



# ERABILERA ANITZEKO MODULOAK

estrategiak

e. 1/75

MODULUAK




ERABILERAK
_Bilera tokia
_Atseden gunea
_Postu izaera
_Kamerinoa
_Eszenatoki atzea
_Irakurgela
_ ...

_Modulu biak konbinatzeko aldea

_Aulki eta mahai biltegia

ERABILERA OINA



EBAKETA



ALTXAERA



DESPIEZEA A5



# ESPAZIO ESTALI ERDIA
## programa konbinaketa

e. 1/250

behe oina




goiko oina



Lehen aipatu bezala eraikinak kale izaera edo espazio estali izaera ere badauka, beste programaren bat garatzen ez den unean. Momentu batzuetan behe solairuko espazio hori osorik edo erdia egongo litzateke erabilgarri nahi diren ekintzak egin ahal izateko, bai umeentzako jolas, pasealeku, taberna estali... Espazio estali publiko bat Euskal lurraldeko klimari aurre egiteko, une oro kanpo espazioarekin harremanetan.

luzetarako ebaketa




### Legenda

| | |
|---|---|
| Azalera erabilgarria | 370 $m^2$ |
| Espazio zerbitzatua (erakusketa areto...) | 285 $m^2$ |
| Espazio zerbitzariak (komunikazio, biltegi...) | 13 $m^2$ |
| Harrera gune | 10 $m^2$ |
| Komunak | 30 $m^2$ |
| Elementu mugikorrak | |
| A-Modulu mugikorrak (A5x2) | 32 $m^2$ |
| Banaketa mugikorrak (pertsiana+oihala) | D1+E1 |
| Sarrera / Irteerak | Sx14 |

ERABILERA AUKERA POSIBLEAK

Espazio zerbitzatua 285 $m^2$
+
Harrera espazioa 10 $m^2$

- Espazio estalia
- Hitzaldi / elkarrizketak
- Jaiak / kontzertuak
- Erakusketa / feriak
- Tailerrak / bazkariak

ESPAZIO ANTOLAKETA DESBERDINAK




espazio zerbitzatua
285 $m^2$ + A5x2 modulo



espazio zerbitzatua
317 $m^2$




espazio zerbitzatua
285 $m^2$ + A5x2 modulo

# SARRERA ESPAZIOKO IKUSPEGIA
programa konbinaketa



# ESPAZIO ESTALI OSOA
## programa konbinaketa

e. 1/250

behe oina




goiko oina




luzetarako ebaketa




Espazio estalia osoa dagoenean erailera gehiagorako aukera ematen du, eszenatokia ere erabili ahal delako kontzertuak emateko espazio estali batean. Honez gain, pasealeku, tailer espazio, erakusketa gune, herri bazkarietako espazio... funtzioa bete lezake.

### Legenda

| | |
|---|---|
| Azalera erabilgarria | 575 $m^2$ |
| Espazio zerbitzatua (espazio estalia...) | 450 $m^2$ |
| Espazio zerbitzariak (komunikazioa, biltegi...) | 75 $m^2$ |
| Harrera gunea | 10 $m^2$ |
| Komunak | 30 $m^2$ |
| Elementu mugikorrak | |
| Banaketa mugikorrak (pertsiana+oihala) D3+E5 | |
| Sarrera / Irteerak | Sx6 |

ERABILERA AUKERA POSIBLEAK





# ESPAZIO ESTALI OSOKO IKUSPEGIA
programa konbinaketa

# PLAZARAKO KIOSKOA

## programa konbinaketa

e. 1/250

Azkenik, plazarako kiosko funtzioa genuke. Lehen aipatu bezala eraikinaren erdigunea eszenatoki mugikorra da eta honek hainbat baliabide ematen ditu, horien artean Musika Plazan kontzertuak emateko aukera. Honela, plazan beharrezkoa litzatekeen kiosko edo eszenatokia egongo litzateke, behar denean soilik.

plaza oina




Legenda

| | |
|---|---|
| Azalera erabilgarria | 1242 m² |
| Espazio zerbitzatua | 1136 m² |
| Espazio zerbitzariak | 68.4 m² |
| Komunak | 5.6 m² |
| Elementu mugikorrak | |
| B-Harmaila mugikorra | 32 m² |
| Banaketa mugikorrak (pertsiana+oihala) D2+E4 | |

luzetarako ebaketa



## PLAZAKO IKUSPEGIA
programa konbinaketa



# VII. GEHIGARRIAK
## proiektuaren garapena

Atal honetan proiektuko gehigarriak azaltzen dira, batez ere proiektuaren irudiak eta maketaren argazkiak.















# IKUSPEGI DESBERDINAK BOZETO GISA
## gehigarriak

Ondorengo hiru orrialdetan proiektuaren irudi desberdinak erakusten dira bozeto erara.

























# ERANSKINA I - ONDARROA 2030
## proiektuaren garapena

Erankineko atal honetan proiekturen ikuspuntu zabalago bat ematen da, proiektu honek herriko hainbat puntutan izango bailuke eragina eta ondorioz, herriko proiektu orokor baten barne proposatzen da, ibai alboko espazio publikoaren jarraitasuna ardatz izanik.

# ESPAZIO PUBLIKOKO ARDATZ JARRAIPENA
## Ondarroa 2030
e. 1/1000

### Ekipamendu publikoen berrantolaketa ibai alboko espazio publikoko ardatzean zehar

Musika Plazako proiektua herriko behar batzuen ondorioz proiektatua izan da, espazio publikoa oinarri hartuta. Musika Plazako proiektuak beste hainbat proiektua egin behar izatea ekarriko lioke Ondarroari, 10 bat urtetako ekipamendu publikoen birmoldaketa bat proposatuz. Ekipamendu publikoak existitzen dira gaur egun baina berregituratu, zaharberritu edo beste erabilera bat eman behar zaie. Eraikin hauen kokapena ibaiertza da eta honek espazio publikoko ardatzaren jarraipena indartzea ahalbidetzen du, ekipamendu publikoak elkarrekin konektatuz eta ibilbide irisgarri bat sortuz.

Ondarroa 2030 atalean Musika Plazako proiektua egin ahal izateko beharrezkoak edo lagungarriak liratekeen prozesuak erakusten dira, plano bidez, ez baita zerbait zehaztua. Lehendabizi, ezinbestekoa litzateke Musika Plazan kokatuta dagoen Udal eraikineko erabilerak eta administraziokoak eraikin bakar baten zentralizatzea. Eraikin hau Zeledonio eraikina (A) izatea proposatzen da, antzinako eskola bat da eta zaharberritu beharrean dago bere egoera kaxkarra dela eta. Aldaketa hau eginik Musika Plazako (B) proiektua egin ahalko litzateke. Eta hau egitean, egungo Berdura Plaza (C-merkatua) ez zen beharrezkoa izango, Musika Plazan egongo baitzen. Beraz, egungo merkatuak aterpe funtzioa izatea proposatzen da, erabilera desberdinetarako erabiltzeko bai udan bai neguan, ibaiarekin harreman zuzenean. Honez gain, Plaza Berdura alboko zubiak sortzen duen kota aldaketa sahiesteko arrapala sistema bat proposatu da, zubiaren beste aldeko zaharren egoitzako erabiltzaileek ibai albotik ibilbide irisgarri bat izateko. Hau horrela, hondartzan hasten den espazio publikoa ibaiaren albotik luzatuko litzateke Zeledonioko eraikinera arte, bertan herriko administrazio gunea sortuz, bai eta aparkaleku,plaza, parkeak...

*Hurrengo orrialdetan ardatzean dauden puntu nagusien oin planoak erakusten dira, bai eta espazio publikoaren luzetarako ardatzaren ebaketa ere, Musika Plazaren amaieratik hasi eta Zeledonio eskolara arte.




BERDURA PLAZAKO OINA
Ondarroa 2030
e. 1/200
3.48
2.97
3.15
3.45
<%6
5.18
5.88
WC
p.g.proiektuaP73

# BERDURA PLAZAKO ESTALKI OINA

Ondarroa 2030

e. 1/200



# ZEHARKAKO EBAKETAK

## Ondarroa 2030

e. 1/200






ZUBI TRANTSIZIOA
Ondarroa 2030
e. 1/200
5.88
WC
5.57
5.78
3.41
<%6
3.35
p.g.proiektuaP76


ZELEDONIOKO PLAZA OINA
Ondarroa 2030
e. 1/250
%4
p.g.proiektuaP77

# ZELEDONIOKO ZEHARKAKO EBAKETA

Ondarroa 2030

e. 1/250



## ZELEDONIOKO APARKALEKU OINA

Ondarroa 2030

e. 1/250



# MUSIKA PLAZAREN BUKAERA

Ondarroa 2030

e. 1/200




p.g.proiektuaP80

# FRONTOIAREN LUZAPENA ETA IGOGAILUA

Ondarroa 2030

e. 1/200



p.g.proiektuaP81

IBAI ALBOKO PASEALEKUA
Ondarroa 2030

e. 1/200



p.g.proiektuaP82

BERDURA PLAZA
Ondarroa 2030

e. 1/200




p.g.proiektuaP83

## ZUBI TRANTSIZIOA
Ondarroa 2030

e. 1/200



# ZELEDONIO ERAIKINA

## Ondarroa 2030

e. 1/200




p.g.proiektuaP85

# ZELEDONIO PLAZA ETA APARKALEKUA

Ondarroa 2030

e. 1/200



# ERANSKINA II - ARGAZKI BILDUMA
## proiektuaren garapena

Erankineko atal honetan argazki bilduma pilatzen da, bai argazki historikoak bai eremuari gaur egun ateratakoak.

# 1. ETA 2. FRONTOIETAKO ARGAZKIAK
## argazki bilduma

Orrialde honetan, lehenengo bi frontoiei buruz dagoen informazio/argazkiak adierazten dira. Alde batetik lehenengo frontoiaren plano zahar bat eta bestetik bigarren frontoiaren argazki bat. Horiez gain, margolan bat ere badago Ondarroaren itxura erakusten duena XIX.mende bukaera eta XX.mende hasieran.




XIX.mende bukaerako planoa



Ondarroako margolana XIX-XX.mende bitartean



Eliza eta bigarren fronoiaren argazkia

Hurrengo hiru orrialdetan 1908 eta 1964 bitartean plazak izandako egoeraren argazkiak izango dira.




















BANCO VIZCAYA








LAB


EZ
ERAKUSKETA


AMNISTIA
PRESOAK KALERA




ONDARROAKO UDALA


ONDARROAKO UDALA








1786
1887
1908
5
4
MOTZ
3


PRESO
GAIXOAK
KALERA!
AMNISTIA








# BERDURA PLAZA ETA ZELEDONIO
## argazki bilduma

Hurrengo orrialdean Berdura Plaza eta Zeledonioko argazkiak eransten dira.









## Bizkaiko Foru Artxiboa

__159/20 (1886.urtea)
2.frontoiaren oin planoa

__ONDARROA 66/009 (1904__1908.urtea)
2.frontoiaren ingurko informeak eta 3.frontoi+plazako memoria

__R.00160/006 (1907.urtea)
3.frontoi eta Musika Plazako proiektua (oin, ebaketa eta altxaera planoak)

## Ondarroako Udal Artxiboa

__147 (1964.urtea)
Udal eta harmailen proiektuaren memoria+planoak

__9482 (1964.urtea)
Udal eta harmailen proiektuaren aurrekontua

## Liburuak

__"SAKETIK ERREBOTERA"
"Ondarroako Pilotariak eta pilota kontuak"
Ondarroako Historia Zaleak

__"ONDARROAKO HISTORIA MARRAZKIETAN"
Jose Luis Burgoa eta Ondarroako Historia Zaleak

## Aldizkariak

__"ONDARROA 2001" Ondarroako Historia Zaleak

__"ONDARROA 2005" Ondarroako Historia Zaleak

## Plano eta araudiak

__ONDARROAKO UDALA Hirigintza saila

## Gradu Amaierako Lana

__"ONDARROAKO MUSIKA PLAZAREN BERREGITURAKETA" (2018)
I:Iñaki Goikoetxea Burgoa / Z:Iñaki Begiristain Mitxelena


*Master amaierako lan hau aurreko urteko Gradu amaierako lanaren garapena da, eta ondorioz, hainbat gauza bertan oinarrituak daude, bai ideia nagusi, estrategia, bilakera historiko...

Master Amaierako Lana

2018 / 2019

Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoa

MUSIKA PLAZA

herriko kulur zentroa